

LEHENENGO ENTZUNGAIA. (5 puntu)

Ariketa honetan Euskadi Irratiko bost informazio entzunen dituzu. Zuk ariketa honetan (A-K) esaldiak dituzu eta entzunen duzun informazio bakoitza dagokion esaldiarekin parekatu behar duzu taulan. 0 zenbakia adibidea da eta bost esaldi sobera daude.

Esaldiak

- A. Eskolan dabiltzan umeei zuzendutako ekimena.
- B. Guraso eta hurrek osatutako argazkiekin erakusketa.
- C. Herriko musika denda baten ixtea.
- D. Herriko musika denda baten ohitura aldaketa.
- E. Hilerri bat bisitatzeko proposamena.
- F. Hilerri berri baten inauguraziora joateko proposamena.
- G. Hilzorian dagoen senitarteko bati laguntzeko jardueren berri.
- H. Neurrigabeko erosketak ez egiteko aholkua.
- I. Ohitura tradizionala baten aldarrikapena.
- J. Salmenta teknika engainagarrien gaineko aholkua.
- K. Senitarteko baten galera gainditzen jakiteko jardueren berri.

Informazioa	0	1	2	3	4	5
Esaldia	A					

BIGARREN ENTZUNGAIA. (5 puntu)

Ariketa honetan Euskadi Irratiko *Faktoria* saioan Bernardo Atxaga idazleari egin dioten elkarrizketa entzungo duzu 2 aldiz.

Aukeratu erantzun egokia (a, b, c). 0 zenbakia adibidean bezala.

- 0.** Irratsaio honetan nor elkarrizketatu dute?
- Ainara Zuzabeitia
 - Bernardo Atxaga
 - Leopoldo II.a
- 6.** Bernardo Atxagaren nobela berria.
- Dagoeneko argitaratzeko moduan dago.
 - Orain arte idatzitako nobelen aldean erabat berria da.
 - Pasarte gogorrek ezabatutakoan, argitaratzeko prest egongo da.
- 7.** Bernardo Atxagak jaso dituen sariak.
- Asko, garrantzitsuak eta Espainian eta atzerrian emandakoak dira.
 - Jaso zuen azken saria Leopoldo II. Erregeak eman zion.
 - Sari ugari bai, baina denak atzerrian emandakoak.
- 8.** Mondello sariaren inguruan.
- Atxagak bazekien sari hori alde zurretik emana zegoela.
 - Atxagak sari horren gardentasuna nabarmendu du beste ezeren gainetik.
 - Literaturan adituak direnek argitaletxeekin batera aukeratzen dute irabazlea.
- 9.** Renoko egonaldiaz, distantzia hartzeaz... hauxe Atxagak esan duena.
- Leguinecheren liburuak lagundu dio Atxagari bere burua hobeto ezagutzen.
 - Nork bere burua ezagutzeko, munduari bira ematea ezinbestekoa da.
 - Urruntasunak laguntzen du norberak bere buruaz hausnarketa egiten.
- 10.** "7 etxe Frantzian" nobela eta itzulpenak...
- Chicagoko irakasle bati zor dio Atxagak Estaduko lau hizkuntzetan argitaratzea.
 - Estreinakoz izango dugu Atxagaren nobela bat Estaduko lau hizkuntzetan.
 - Euskarako itzulpena Estaduko gainerako hizkuntzetakoekin batera aterako du.

Galdera	0	6	7	8	9	10
Erantzun egokia	B					

HIRUGARREN ENTZUNGAIA. (5 puntu)

Ariketa honetan Euskadi Irratian “Hiru Erregeen Mahaian” kirol saioan aizkolaritzari buruzko elkarrizketa-zati bat entzungo duzu 2 aldiz.

Aukeratu erantzun egokia (a, b, c). 0 zenbakia adibidean bezala.

- 0.** Pasa den igandean Amurrion
- herri-kirol ezberdinak ikusteko aukera izan zen.
 - idi-probak izan ziren.
 - aizkolarari txapelketa izan zen.
- 11** Amurrion izandako Euskal Herriko aizkolarari txapelketan Nazabalek irabazitako txapela
- aizkolaritzari aurrerakada emango diona izango da.
 - irabazi dituen txapeletako bat izan zen.
 - lehenengo aldiz irabazi zuena izan zen.
- 12.** “Lorategia nahiko ximurtua dago” esatean, zer esan nahi du Osak?
- Aizkolaritzak ez duela etorkizunik.
 - Aizkolaritzan ez dela nahi beste gazte aritzen.
 - Bakar batzuei esker, aizkolaritzak gora egin duela.
- 13.** Gaur egungo aizkolaritza
- debozia dela esan daiteke.
 - lehenengoaren antzera, ogibide izan daiteke.
 - ofiziotzat har daiteke.
- 14.** Juan Manuel Erasunen ustez, aizkolaritzaren beherakada
- aspaldiko urteetako kontua da.
 - bat-batekoa izan da.
 - herri-kirolen beherakadaren barruan uler daiteke.
- 15.** Herri-kiroletan
- ez dira txapelketa edo konpetizioak behar gorakada izateko.
 - federazio eta klubetako ordezkarien lana behar da.
 - instituzio ezberdinek lan handia egin dute.

Galdera	0	11	12	13	14	15
Erantzun egokia	C					